

Martin Ugalde. Euskal prentsaren bultzatzaile nekaezina

[Egile ezezaguna]

Berrria, 2003-09-11: 13.

Andoainen, Martin Ugalde Kultur Parkearen lehen harria paratu zuten egunean, zera erran zuen omenduak *Euskaldunon Egunkaria*-k betetzen zuen Laborde lantegiari begiratzuz: "Horko kristal horiek nik jarri nituen". Izan ere, Martin Ugaldek euskarazko kazetaritzaren oinarriak jartzen lagundu du, eta ezinbertzeko erreferentzia da euskal kulturaren.

Ugalde idazle oparoa izan da eta euskal prentsaren bultzatzaile nekaezina. *Euskaldunon Egunkaria*-ren sortzaileetako bat izan zen, eta kazeta horretako ohorezko lehendakaria da. Hain zuzen ere, iragan otsailaren 21etik haren diru kontuak blokeatuta dauzka Espainiako Auzitegi Nazionalak *Egunkaria*-ren aurkako operazioa gidatu zuen Juan del Olmo epailearen aginduz.

Martin Ugalde Orradre 1921. urtean jaio zen Andoainen (Gipuzkoa). Gazte-gaztetatik hautatu zuen euskaltzaletasunaren eta abertzaletasunaren eta abertzaletasunaren bidea. Hori dela-eta, 1936ko Gerran, herritik alde egin behar izan zuen, eta 1947an Venezuelara joan zen, han baitzuen familia. Hego Amerikan, kazetari lanetan hasi zen, eta emaitza oparoa utzi zuen, euskaraz zein gaztelaniaz; *Euzko Gaztedi* eta *Euzkadi* aldizkarietako zuzendaria izan zen. Halaber, literatura idazten hasi zen.

1969an itzuli zen Euskal Herrira. Orduetik utzi duen uzta guztiz oparoa da. Aldizkari ofizial zein klandestinoetan lan nekaezina hasi zuen, eta Euzko Alderdi Jeltzalearen barruan gogoz jardun zuen *Alderdi* argitalpena gidatuz. 1973an, Espainiako Poliziak deportatuta, Donibane-Lohitzunen finkatu behar izan zuen, eta 1976an itzuli zen Hego Euskal Herriera.

Deia egunkariko euskarazko taldearen erredaktore buru izan zen. Eta erran bezala, *Euskaldunon Egunkaria*-ko sortzaileetako izan zen proiektuak estreinako urratsak egin zituenetik; 1990etik 1999ra, Administrazio Kontseiluko lehendakaria izan da. Orduetik, berriz, egunkariko ohorezko lehendakaria da.

Literatur lan anitz idatzi ditu: *Iltzaileak* (1961); *Mantal urdina* (1984); *Bihotza golkoan* (1990); eta *Mohamed eta parroko gorria* (2000), bertzeak bertze. Egin dituen literatur lanengatik hainbat sari jaso ditu. 1973tik euskaltzain urgazlea da eta 1993az geroztik ohorezko euskaltzaina.

Politikagintzan ere ibilia da. Erbesteko Jaurlaritzaren azken urteetan kontseilari izan zen, eta Garaikoetxea lehendakariarekin, Euskararen Sustapenerako arduradun.

Sari ugari jaso ditu Martin Ugaldek. EHUK *honoris causa* doktore izendatu zuen 1999an. Iaz, Lan Onari saria eman zion Eusko Jaurlaritzak.